

Euskal AEko industria %3,7 hazi zen 2007ko maiatzean


Urteko lehen bost hilabeteetan %4,4ko hazkunde metatua izan da, 2006ko aldi beraren aldean

EUSTATen datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneousari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa 2006ko hil beraren aldean %3,7 hazi da 2007ko maiatzean. Urteko lehen bost hilabeteetan %4,4ko hazkunde metatua egon da, 2006ko aldi beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, 2007ko maiatzean % 3,1 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin alderatuta.

Industri jardueraren balantzea urteko lehen bost hiletan urte arteko %4,4ko hazkundearekin itxen da; ekipoko eta bitarteko ondasunek jokaera azpimarragarria izan dute; berriz, energiako sektorean eta kontsumoko ondasunenean tasa negatiboak izan dira (batez ere kontsumo ez iraunkorraren ondasunetan).

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka



(*) 2007ko apiril-maiatzeko urte arteko hazkunde zuzendua
Iturria: Eustat.

Sektoreen araberako bilakaera

Sektoreka, eta industri sektore handien sailkapenetik, 2007ko maiatzeko indizearen bilakaeran, 2006ko maiatzaren aldean, hazkundeak dauzkagu ekipoko ondasunetan (%5,9) eta bitarteko ondasunetan (%5,9). Energiari jaitziera dugu (%1,7); eta baita kontsumoko ondasunetan ere

(%3,8), kontsumo ez-iraunkorraren ondasunetan (%-4,6) eta iraunkorretan (%-2,4) izandako jaitsierengatik.

2007ko maiatzeko hil arteko aldakuntzak positiboak izan dira 2007ko apirilaren aldean industri sektore handi guztientzat: Ekipoko ondasunetan %3,8ko igoera dugu; bitarteko ondasunetan %1,8koa; energian %0,7koa eta kontsumoko ondasunetan %4,1, apirilaren aldean Kontsumo-ondasunen osagaien artean, kontsumo-ondasun iraunkorrek %0,6ko hil arteko igoera izan dute eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrek %6,0koa, apirilaren aldean.

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak positiboak izan dira guztietan; Gipuzkoan %5,2 hazi da, Bizkaian %4,1 eta %0,1 Araban.

Hil arteko hazkunde-tasak, 2007ko maiatza apirilaren aldean, positiboak izan dira hiru lurraldeetan: Araban %2,4 hazi zen, Bizkaian %2,5 eta Gipuzkoan %4,2.

Taula: 2007ko MAIATZA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%).

Kontzeptua	Zuzendua		Desestacionalizatua	
	Mai07 / Mai06	At / At-1 (1)	Mai07 / Api07	Api07 / Mar07
Indize orokorra: Euskal AE	3,7	4,4	3,1	-3,9
Araba	0,1	3,7	2,4	-5,0
Bizkaia	4,1	3,6	2,5	-2,4
Gipuzkoa	5,2	5,6	4,2	-4,9
Indizeak helburu ekonomikoka-Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-3,8	-3,0	4,1	-5,6
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-2,4	0,0	0,6	-3,9
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-4,6	-4,5	6,0	-6,5
Ekipo-ondasunak	5,9	9,3	3,8	-5,7
Bitarteko ondasunak	5,9	5,6	1,8	-1,3
Energia	-1,7	-3,7	0,7	-4,2

(1) "t" urteko maiatzetik azken hilera arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urteko aldi beraren aldean.
Iturria: Eustat.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Telef.: +34 -945 75 00 Faxa: +34 -945 75 01 e-mail: eustat@eustat.es
 Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja
 Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01
 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
 Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp